

BELAKO TALDEAren EGONALDIA

Donostia / Biarritz

Prentsa oharra



Apirilak 7-11
Intxaurrondo K.E. (Donostia)
Atabal Gunea (Biarritz)

Eskola topaketak

Apirilak 9 Intxaurrondo (11:30)

Apirilak 11 Atabal (10:00)



LOGO ATABAL

Belako talde bizkaitarrak sekulako arrakasta izan zuen iaz “Eurie” diskoarekin. Orain, maiatzean argitaratuko duten **disko berria** prestatzen ari dira. Disko hau autokoitzia izango da.

Zuzenekoa kontzertuak prestatzeko, Belakoren indargune nagusia, bi egonaldi egingo ditu taldeak, **Intxaurrondo Kultur Etxean** lehena, apirilaren 7a eta 9a bitarte, eta Biarritzeko **Atabal Gaurko Musiken Gunean** bigarrena, apirilaren 9a eta 11 bitarte.

Egonaldi hauekin batera, inguruko ikastetxeekin **bi topaketa** egingo dira.

- Intxaurrondon, apirilaren 9an, 11:30etan, **Lauaizetako Ikastetxeko** (<http://www.lauaizeta.hezkuntza.net/web/guest>) DBH 3-ko 100 ikasle.
- Biarritzeko Atabalen, apirilaren 11ean, 10:00etan, **Larzabal Kolegioko** (<http://www.seaska.net/eu/kolegioak>) 12-13 urte bitarteko 50 gazte.

Topaketa hauen helburu nagusia musikan, sorkuntza prozesuak nola gauzatzen diren erakustea da, eta hala, musikarekiko eta orokorrean kulturarekiko gaztetatik sentsibilizatzea.

Euskal Kultur Erakundeak eta **Donostia Kulturak** sinatu zuten hitzarmenari esker gauzatuko da ekimena hau. Hitzarmenaren ondorioz elkarrekiko ezagutza sakondu da, eta hala, eremu ezberdinetako eragile, ekipamendu eta praktika kulturalen elkarlana gauzatu.

Helburu nagusiak:

- Euskarazko sorkuntza eta ekoizpen kulturala bultzatu
- Ekipamenduen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatu
- Kulturarekiko sentsibilizazioa eta kultur sozializatzeko jarduerak egin eta publiko berrien sorkuntza bultzatu

Ohar honen bitartez, komunikabideak gonbidatu nahi ditugu topaketa hauek ezagutzera eskolekin egingo diren hitzorduetarako gerturatuz.

Kontaktuak:

- **Agurtzane Aizpuru (Intxaurrondo): 618568991**
- **François Maton (Atabal): +33 559417323**

BELAKO "EURIE", promozio orria

Talde honek 18 hilabeteen soilik Gaztea eta Radio3 irrastien musika lehiaketak irabazi ditu, Crystal Fighters edo Shouts Out Louds taldeek beren biretan laguntzeko aukeratu dituzte, Donostiako Jazzaldia Elvis Costelorekin antolatutako gaualdia ireki zuten. Hainbat agentzia eta diskoetxeek hauek lortu dabilta eta publiko zein prentsa espezializatuaren gorespen osoa lortu dute.

Kantu ederrak, euren jarrera, gaztetasuna, iluntasunetik intentsitate etenezinera doazen zuzeneko enpatikoak, dentsitate zapaltzailea duten baxuak, pisudun bateriak eta mailuen gisan astintzen diren baketak, hausten diren gitarra oldarkorrak, marmarretik orrora pasatzen diren ahotsak... post punk, noise, elektronika... Milaka adjektibo jar genitzake eta hala ere zaila litzateke azaltzea ondorengo zuzenekoetan sortu duten zirrara: **BBK Live; Kutxa Kultur Festibala; Razzmatazz; Zugarramurdiko Crystal Fightersen Cave Ravea, BUT...** Mungiatik datoz, atsegin dute egiten dutena eta oholza ganean antzematen zaie hori, beren adinerako ohikoa ez den heldutasuna erakutsiz... Objektiboak ez garenez, utz dezagun prentsa haietan hitz egin dezan...

Egun hauetan BELAKO bere zuzenekoa prestatzen ari da Intxaurren eta Atabalen beren disko berriko kantuekin. Argitaratzearekin batera, Belakok euskal talde batek sekula egin duen bira garrantzitsueneko bati ekingo dio 2014an zehar: Primavera Sound, BBK Live, Low Festival, SOS 4.8, Donostikluba, Insomni, Tressesenta... hauek parte hartuko duen 30 jaialditako batzuk dira eta maiatzean iragarriko ditu diskoarekin batera.

PRENTSAN

*"Lotsagabeki gazteak, badute presentzia eta kantuak, eta gainera, musikari balioanitz eta inspiratuak dira. Ingelesak balira, dagoeneko beteko zuten **New Musical Express** aldizkari azala: gaztetasuna, irudia, soinua, jitea eta publikoarekin lortzen duten loturak bermatzen dute iritzi ausarta hau. Soinua post-punk britainiarraren itxura du (**Joy Division; The Cure**), eta baita 80 eta 90. hamarkadako noise estatubatuarrena (**Sonic Youth**); eta tarteka, **Muse** edota **Delorean** eta **M83** gogora ekar ditzaken musika zipriztinak. Belako diamante gordina da eta haren ahalmena izugarria da"*

Rolling Stone

*"Kazetariak pribilegiatu batzuk garelako esaten dutenean, ez daude gauza hauetan pentsatzen. Baina bai, gaur **Belako** talde bizkaitarraren mikrokontzertua gozatzeko ohorea izan dugu"*

Diario Vasco

"Belakok egin duen diskoa ukabilkada bat da."

Bsides

"Belako deskubritu berri dut "Beautiful World" izeneko kantuaren bideoari esker eta segituan egin naiz haien zaletu; nire errebelazio talde gogokoenen artean ditut "

Hipersonica

"Belakoren "Eurie", bikaintasuna ukitzen duen debuta, post-punkaren , hardcorearen eta grungearen irabiagailua"

Paniko Nuklear

"Elvis Costello eta Belakok sekulako arrakasta izan dute Jazzaldian. Mugiako (Bizkaia) talde gazteak bertako fenomeno bilakatzeko bidean da eta diskoa aurkeztu zuenetik ez dio utzi kontzertu eta jaialdietan jotzeari. Belakok freskoa sonatzen duen new-wavea eta punk-rocka nahasten ditu. Bere lau kideak (Lore, Kris, Josu eta Lander) seguru agertu ziren eszenatoki gainean eta apika berea egiten joan ziren, eta bertatik, gainezka duten energia banatu zuten han hemenka. Sekula ez zuen halako ibilbide motza zuen talde batek parte hartu Heineken Jazzaldiaren Espazio Berdearen afitxan."

Jenesaispop

" Espainiatik maite ditut Delorean, Joe Crepusculo eta Belako. Oso arro gaude Belako gure Cave Ravera gonbidatzearekin."

Sebastian Pringle, Crystal Fighters

BELAKO TALDEA

Josu Billelabeitia: gitarra, ahotsa

Lore Billelabeitia: baxua, ahotsa

Cris Lizarraga: ahotsa, teklatuak

Lander Zalakain: bateria, ahotsak





<https://es-es.facebook.com/belako.taldea>

belakomusic.bandcamp.com